

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako bainurako hamar inguru naturalak erabiltzeko moduan daude, ur-kalitatearen kontrolen arabera

*Osasun Departamentuak noizean behin egingo ditu analisiak denboraldi osoan, uztailaren 14tik abuztuaren 31ra arte*

Viernes, 18 de julio de 2014

Bainatu egin daiteke Nafarroako bainurako hamar inguru naturaletako uretan, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak udako denboraldia hasi aurretik egindako ur-kalitatearen kontrol eta analisisen arabera. Aurtengo denboraldia uztailaren 14tik abuztuaren 31ra artekoa izango da.



Urederra ibaiko bainatzeko gunea

Honako hauek dira Nafarroako ibaietan dauden hamar inguruak: Beriaingo ["la Morea" urmaela](#); Burgiko [Eska ibaiko presa](#); Zarakasteluko [Aragoi ibaiko presa](#); [Lizarrako Ur gaziko iturburuko "La Pileta" delakoa](#); [Lerateko \(Gesalatz\) Allozko urtegiko "Pieza Redonda" delakoa](#); Nabaskozeko [Benasako arrolako](#) ibaian dagoen igerilekua; Otsagabiako [Anduña ibaian](#) dagoen igerilekua; Tuterako [El Pulguer putzua](#); Uztarrozeko [Uztarroze ibaian](#) dagoen igerilekua eta Zudaireko [Urederra ibaian dagoen "La Central" delakoa](#).

### Lau kontrol

Denboraldian, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak lau kontrol egingo ditu gutxienez horietako bakoitzean. Laginketa bakoitzean Escherichia Coli eta hesteetakok Enterococcus bakterioen kontaminazio fekalaren parametro biologikoak aztertuko dira uretan baina daitekeen ala ez ebaluatzeko. Gainera, araudiak berariaz hala eskatu ez arren, kolorea, olio mineralak, substantzia tentsoaktiboak, fenolak, gardentasuna, mundruna eta flotatzaileak eta eroankortasuna bezalako beste alderdi batzuk ere kontuan hartuko dira. Azkenik, baldintza higieniko-sanitarioak eta inguruko azpiegiturak ere baloratuko dira.

Balio horiek guztiak Osasun Ministerioaren [Náyade](#) (bainurako uren informazio-sistema nazionala) web-orrian ikus daitezke. Bertan, Espainiako gainerako itsas hondartzei eta barrualdeko hondartzei buruzko informazio eskura daiteke. Halaber, [Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren](#) webgunean eta [Landa Garapeneko](#),

[Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuarenean](#) dago ikusgai bainurako inguru naturalei buruzko informazio guztia.

### **Seguru bainatzeko gomendioak**

Nafarroan, igerilekuez gain, bainurako eremu horiek erabiltzeko ohitura dago udan, jolaserako eta ur-kiroletarako. Hori dela-eta, 30 urte dira bainurako uraren kalitatea kontrolatzen dela ura jolaserako erabiltzen duten herritarren osasuna babesteko.

Hala ere, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak gogorarazi du ez dagoela ezarrita araudirik jolaserako eremu horietan zaintza jartzeko beharraren inguruan, beraz, ez Foruzaingoak, ez Ingurugirozaintzak, ez beste segurtasun- edo larrialdi-taldek ez dauka Nafarroan bainularien segurtasuna zaintzeko ardurarik.

Garrantzitsua da igeri dakien beste heldu batekin bainatzea eta haurrak zaintzea, baita uretan pixkanaka sartzea ere, aurrez garondoa eta eskumuturrak bustita. Ez da gomendagarria uretara bat-batean jauzi egitea, batez ere sakonera nolakoa den jakin gabe.

Bainulariren bat ur-korronteak eramaten badu, ez da gomendatzen korrontearen aurka igeri egitea, baizik eta korrontearekin batera joatea, handik atera arte.

Halaber, asko jan edo edan bada, ura oso hotz badago, ariketa fisikoa egiteagatik nekatuta egonez gero, ekaitza bada edo lorik egin ez bada, ez bainatzea gomendatzen da. Behin uretan sartu ondoren, atera berehala bertatik etengabe hotzikarak izanez gero, nekatuta egonez gero, sabelean edo besoan azkura izanez gero, bertigoa edo belarrietan burrunba sentituz gero, edo ondoezik egonez gero.